**2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.**
***Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.***

Testua. TEXTO.



Manos Unidas
Esku Elkartuak

**SABES LEER,
ELLOS NO.
PODEMOS
CAMBIARLO.**

**IRAKURTZEN
BADAKIZU,
HAIEK EZ.
ALDATU
DEZAKEGU
HORI.**



Hara, 2015. urtean munduko haur guztiak eskolatuak izatea ez da utopia bat, ezta amets bat ere, guztioi dagokigun betebehar bat gauzatzea baizik. Gizakiak, pertsona bezala, bere bizitzako arlo guztietan, bai pertsonalean bai sozialean, garatzeko eta prestatzeko eskubidea eta betekizuna du, eta guztiok dugu hori lortzen laguntzeko betebeharra. Hezkuntza da, oinarrizko ezagutzarik ez izateagatik sarritan murriztuak izaten diren garapen hori eta prestakuntza hori ahalbidetzen dituena.
Esku Elkartuak erakundean jakin badakigu funtzionatzen duten hautabideak badaudela, eta guztion artean mundua aldatu dezakegula. Urtero sustatzen eta laguntzen ditugun ehunaka proiektuek hala erakusten dute. Oraingo honetan, urte osoan zehar, apur bat gehiago aldatu nahi dugu mundua, etorkizun hobea lortu nahi dugu bere garaian eskolara joaterik izan ez zuten heldu horientzat, eta gaur egun eskolara joan ezin duten 121 milioi neska-mutil horientzat.


PROYECTOS APROBADOS EN EL AÑO 2005/2005. URTEAN ONARTURIKO PROIEKTUAK
En el año 2005 se han recaudado 60.851.013 euros y aprobado 845 proyectos de desarrollo en 60 países, repartidos entre las siguientes prioridades y continentes:
2005. urtean 60.851.013 euro bildu ziren, eta garapenerako 845 proiektu finantzatu dira 60 herrialdetan. Baliabideak honako lehentasun eta kontinenteen artean banatu dira:
137 Promoción de la mujer
Emakumea sustatzeko 137 proiektu
288 Educativos
Hezkuntza sustatzeko 288 proiektu
143 Sanitarios
Osasungintza sustatzeko 143 proiektu
167 Sociales
Gizartea sustatzeko 167 proiektu
110 Agrícolas
Nekazaritza sustatzeko 110 proiektu
África 326 / Afrika 326
América 213 / Amerika 213
Asia y Oceanía 306 / Asia eta Ozeania 306
ORIGEN DE LOS INGRESOS /DIRU-SARREREN JATORRIA:
Sector Privado
Fondo pribatuak
82,4%
Sector Público
Fondo publikoak
17,6%
APLICACIÓN DE LOS INGRESOS DESGLOSADO/DIRU-SARREREN BANAKETA:
Proyectos en el Tercer Mundo
86,7%
Administración y estructura
Administrazio eta Egitura
4,9%
Promoción y Captación de Recursos
1,4%
5,1%
Gestión de Proyectos
1,9%
Total fines de Manos Unidas/ ESKU ELKARTUAKen helburuak orotara: 93,7%
Resto/ Gainerakoak: 6,3%

| | |
|---|---|
| GAIA/ASIGNATURA | ERLIJIOA |
| MAILA/CURSO | DBH. 4. |
| IKASTETXEA/CENTRO | ALAITZ BHI. |
| DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO | ERLIJIO KATOLIKOA |
| IRAKASLEA/PROFESOR / A | CRISTINA BARRENETXEA |
| **JATORRIA/FUENTE** | |
| EGILEA/AUTOR | MANOS UNIDAS/ ESKU ELKARTUAK- GKE. |
| IZENBURUA/TÍTULO | Irakurtzen badakizu, haiek ez. Aldatu dezakegu hori. |
| ARGITALETXEA/EDITORIAL | Manos Unidas-en liburuska |
| URTEA/AÑO | 2007 |
| ORRIALDEA(K)/PÁGINA | 4 |
| ISBN | |
| **TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA** | |
| OINARRIA/SOPORTE | Texto impreso |
| FORMATOA/FORMATO | LIBURUSKA |
| MOTA/TIPO | ETENA |
| ERABILERA/USO | PUBLIKOA |
| **ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA** | |
| IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA | **Aurretiko ezagutzak** aktibatu:<br>1. **Testu motari buruzkoa**: liburuska bat zer den, zertarako erabiltzen den…<br>2. **Edukiei buruzkoak**:<br>• GKE zer den definitu,<br>• adibideak jarri,<br>• zer desberdintasun daukaten Elizaren barnean sortutakoek,<br>• esan zer dakiten Esku Elkartuak (Manos Unidas) GKEri buruz, herrialde pobreenen egoera hezkuntzaren arloan komentatu.<br>• Milurtearen helburuak zer diren aurkeztea: 2000. urtean 189 nazio eta erakunde garrantzitsuenek pobrezia desagerarrazteko sortu zituzten zortzi helburuak, 2015. urterako lortu behar direnak.<br>**Irakurketaren helburuak:**<br>1. Informazio orokorra lortzeko: 2007.eko proiektua ezagutzea.<br>2. Informazio zehatza lortzeko: 2007.eko proiektuak zein helburu dituen ezagutzea, 2005.eko proiektua dirua nola inbertitu zen ezagutzea.<br>**Hipotesien garapena**:<br>1. Liburuskaren azalean dagoen izenburuaren esanahiari buruzko hipotesiak,<br>2. Logotipoari buruzko hipotesiak.<br>3. Marrazkiari buruzko hipotesiak. |
| IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA | 1. Laburbiltze partzialak: 2. orrialdean dagoen bigarren paragrafoa (1. gaztelaniaz dagoelako), laburbildu ozenki. 4. orrialdean dagoen testua laburbiltzea ozenki.<br>2. 3. orrialdeko informazio esanguratsuena atera. |
| IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA | 1. Hasierako iragarpenen baieztapena ala zuzenketa.<br>2. Laburpen orokorra egin. |
| | |

<table>
<tr><th colspan="3">JARDUERAK/PROCESOS LECTORES</th></tr>
<tr><td rowspan="4">Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN</td><td>1.</td><td>Nondik lortzen ditu bere fondoak Esku Elkarturik GKEk?</td></tr>
<tr><td>Erantzuna Respuesta</td><td>Bazkideen kuotak, parrokietan urtean behin egin ohi den diru bilketa, ikastetxeen eta enpresen laguntzak, tarteka egiten dituzten ekarpenak, etab.</td></tr>
<tr><td>2.</td><td>Zer urtetarako lortu nahi da munduko ume guztiak oinarrizko hezkuntza izatea?</td></tr>
<tr><td>Erantzuna Respuesta</td><td>2015. urterako.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL</td><td>1.</td><td>Aurtengo kanpainaren leloa “Irakurtzen badakizu, haiek ez. Aldatu dezakegu hori” da. Asmatu zeuk beste izenburu ala leloren bat.</td></tr>
<tr><td>Erantzuna Respuesta</td><td>Erantzun irekia.</td></tr>
<tr><td>2.</td><td>Zein da liburuskaren helburu nagusia?</td></tr>
<tr><td>Erantzuna Respuesta</td><td>Erantzun irekia: Esku elkarturik GKEren lana aditzera ematea eta beren proiektuetarako dirua lortzea.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS</td><td>1.</td><td>Sektore diagramak (gazta-diagramak) erabiltzen dira. Zertarako balio dute?</td></tr>
<tr><td>Erantzuna Respuesta</td><td>Erantzun librea:<ul><li>Diru-sarreren jatorria eta banaketa adierazteko</li><li>Sartzen den dirua zertan erabiltzen den begirada batez.</li></ul></td></tr>
<tr><td>2.</td><td>Zergatik Esku Elkarturik finantzatu dituen proiektuen artean, “Hezkuntza sustatzekoak” gehiago dira besteak baino?</td></tr>
<tr><td>Erantzuna Respuesta</td><td>Erantzun irekia: ongi izateko bi erantzun hauek eman beharko ditu:<br>a) Ikasleak harremanetan jarri beharko ditu oinarrizko hezkuntzaren beharra eta beste proiektu mota guztien garapena. Hezkuntza da “zutabea” beste eskubide guztiak bermatzeko.<br>b) Urte horretako kanpainaren helburua hezkuntza unibertsala lortzea da.</td></tr>
<tr><td>Formaren gaineko hausnarketa</td><td>1.</td><td>Erlazionatu kanpaina honetan erabiltzen den marrazkia eta bere edukia.</td></tr>
</table>

| | | |
|---|---|---|
| VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA | Erantzuna Respuesta | *Irekia:*<br>*a) Agertzen den irudia emakume afrikarra da, buruan saskia daramalako Afrikan eramaten diren bezala. Ume bat ere izan daiteke. Saskiaren barruan hizkiak daude: hezkuntzaren sinboloak dira kasu honetan, hezkuntza denontzako lortzea izan ere kanpainaren helburua da.*<br>*b) Irudia mugimenduan dago: gu "mugitzen" bagara, hezkuntza beraiengana heldu daiteke. Lurralde pobretuen biztanleentzat ere hezkuntza izatea aurrepausu handiak ematea da (aurrera mugitzea).* |
| | 2. | Zer adierazten du "2005. urtean oinarrituriko proiektuak" izenburua duen orrialdean zenbait esaldi eta hitz URDINEZ egoteak? |
| | Erantzuna Respuesta | *1. parrafoan garrantzitsuak diren datuak urdinez daude. Jarraian dauden testuetan euskararako itzulpena adierazten dute.* |
| Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO | 1. | Zure ustez, zergatik lantzen da gai hau Erlijio klasean? |
| | Erantzuna Respuesta | *Erantzun irekia:*<br>*a) Kristauek "solidarioak" izan behar dutelako ebanjelioaren arabera.*<br>*b) Esku Elkarturik GKE katolikoa delako.* |
| | 2. | Garapenerako Gobernuz Kanpoko Elkarte guztiak: (aukeratu bat)<br>1. Akonfesionalak dira, hau da, ez dute zerikusirik Erlijio batekin.<br>2. Eliz katolikoak sortutakoak dira.<br>3. Batzuk izan daitezke katolikoak, beste batzuk ez.<br>4. Helburu berdinak lortzen saiatzen dira. |
| | Erantzuna Respuesta | *3. erantzuna da ongi dagoena.* |
| **PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA - OHARRAKOBSERVACIONES** | | |
| | | |